

## Iñaki Iturriotz Arratiako Bertso Txapelketan txapeldun

12. orrialdea

## Arratia ligako txapelduna

Arratiako nesken futbol taldea ligako txapelduna da. Denporaldia ezin hobea egin dabe, hasiera-hasieratik liderrak izan dira eta. Publikoaren babesa izan eben neskak maiatzaren 12ko partiduan. Urbieta futbol zelaiko harmailetan beilegia zan nagusi eta partidua amaitzear egoanean, publikoak "txapeldunak, txapeldunak" kantau eban ago batez. **11. orrialdea**



## XXXIII. Arratiako Maratoi Txikia maiatzaren 27an izango da

11. orrialdea

# Andres Urrutia euskaltzainburuak berbaldia emon eban Lemoan

Juan Bautista Eguzkitza Meabe lemoaztarraren sermoi eta berbaldiak batzean dituan liburu bat argitaratuko daugitxi barru Labayruk.

**H**ori dala eta, Lemoako Udalera jo dabe Labayrukoak laguntasuna eskatzeko. Udalak baiezkoa emon eta Labayrukoak aste kulturallean idazlearen gaineko berbaldi bat emotea pentsau eben Eguzkitzaren barri emoteko. Holan, maiatzaren 8an, Eguzkitzaren gainean gehien dakian aditua etorri zan berbaldi hori emoten: Andres Urrutia euskaltzainburua, hogei urtetik gora daroazana Eguzkitza ikertzen.

Juan Bautista Eguzkitza Meabe (1875-1934) abadea eta idazleaz gainera, sasoiko abangoardiako

intelektuala izan zan Urrutiaren esanetan. Lemoan jaio eta hil egin zan eta badira Lemoan bizi diran bere senitartekoak, baina don Juan, holan deitzean ei eutsien, Lekeition bizi izan zan 33 urtez eta Euskal Herri osotik ibili zan sermoigintzan.

Erlijio liburuak eta gai sozialen gainekoak idatzi zituan. Kazetaritza be landu eban sasoiko euskerazko prensan. Euskaltzain osoa izan zan, Euskaltzaindiaren sorreratik, ekarpen handiak egin zituan euskalgintzan eta "oso aktiboa izan zan euskalzaleatasuna zabaltzen". **8. eta 9. orrialdeak**



Saioa Elejabarrieta, Igone Etxebarria eta Andres Urrutia.

### LEMOA

## Hedabideen etorkizuna eztabaidagai



Maiatzaren 17an, BEGITUREN 10. urteurrenaren ekitaldien artean, euskal hedabideen etorkizunaren gaineko mahai-inguruan Maria Gonzalez Gorosarri kazetaritza doktorea, Mikel Irizar Topaguneako presidentea eta Martxelo Otamendi Berriako zuzendariak aztertuko dabe hedabideen egoera. **13. orrialdea**

### IGORRE

## 600 sinadura haur eskolea handitzeko

Igorreko guraso batzuk seirehun sinadura jaso dabez haur eskolea handitzeko eskatuz. Udalak bere eskuetan dagoana egingo dauala agindu deutse. Alkateak Haurreskolen Partzuergoagaz eta Eusko Jaur-laritzeagaz batzarra eskatuko dau. Gaur egun 34 plaza dagoz Igorreko haur eskolan. **7. orrialdea**

### LEMOA

## Hatsa Lemoan

Bistibietako zabortegiko hatsen arrazoia isurketak izan daitezke. Izan be, aldatz baten dago eta erreka baten ondoan. Aspaldi honetan errekatxo horretako urak be lohi, kutsatuta dagoz. Baina 2008tik ez da isurketa kontrolik egin, kontrolon kontrako errekursoa ipini ebalako zabortegia ustiatzen dauan enpresek eta onartu egin eutsielako. **5. orrialdea**

arratiako merkatarien elkarte  
www.arratia-merkatariaK.com

JO ta KE  
IRABAZI ARTE!

IGORREN EROSI

**KANTU HERRIKOIAK**

**BILBOTIK  
IPINABURURA**

Ipiñaburun dagoz bildurrez ikara heldu ez dagitezen txariak bertara. Bada entzun ei dabe hara ta Undurrara laister juango dirala zazpi barkukara.

Atzo Ipiñaburun egin dan batzarra Bizkaian izango da hurrean bakarra. Amuz beteko dabe hango errekatarra hobeto koxuteko barku txarritarra.

Bertsoen egilea: Bonifazio Latxa Agirre (Ubidea 1874-Argentina 1909). Xabier Amurizaren "Bizkaiko Bertsogintza" bildumatik hartua. Doinua: Bitoria Artetxe eta Paule Mendibil.

Sartu ez dagitezen Undurrari txariak errekan hasi dira ipinten harriak handi gogorak eta ikaragariak Oketako basotik Praiskuk ekarriak.

Baita Ubide bere hasi da lanean han sartuko dirala entzun dabenean. Torrean prest prest dagoz kainoiak danean ontziok apurtzeko Barazar ganean.

Ipiñaburun dino gizonik zaharrenak aldatza igo ezkeru barkunik txarrenak zelan ez dau igoten Ubidera trenak? Unik ez dau topatzen? Bai gura dabena.

Ubidera joan nintzan behin eta berean urok eta edurrok ugari zirean. Bada ez leuke hartuko tren horrek bidean behar dabena ur hori? Arraielarean!

Entzunik doiazala Ubideko herrira Otxandioke plazan ikaratu dira. Alkareri dineutse: Sartuko ete dira txariok Otxandion? Bai, txarritarra.

**Ipiñaburun**



**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**  
**09:00etatik 22:00etara**  
**Maiatzaren 14tik 20ra**  
N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**  
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.  
**Maiatzaren 21etik 27ra**  
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**  
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.  
**Maiatzaren 28tik bagilaren 3ra**  
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

**22:00etatik 09:00etara**  
Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**  
**22:00etatik 09:00etara**  
Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30  
**Igorre:** 94 600 74 63  
**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 45 03 61  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**  
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15  
**Gorbeialde**  
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01  
**Parketxea**  
94 673 92 79  
**Igorreko Kultur Etxea**  
94 673 62 51  
**Gorbeialde Irratia**  
94 631 52 90  
**Trenak**  
Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**  
**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.  
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.  
Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.  
Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.  
Orduru: 05:45etik 21:45era.  
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.  
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.  
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**  
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.  
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**  
Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.  
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**  
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,  
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.  
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.  
Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**  
Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.  
Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.  
**Zeberio-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.  
Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**  
Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.  
Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11**  
**Bilbo-Gasteiz**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.  
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.  
Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefonoa:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Kudeatzailea:** Inigo Iruarizaga.  
**Erredakzino taldea:** Urtzi Barrenetxea, Ainhoa Duñabeitia, Maialen Egileor, Cristina Ruiz eta Irati Urien.  
**Maketazinoa:** Inigo Iruarizaga.  
**Publizidadea:** Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketea:** June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alai Ozerinjauregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tiradea:** 6.600 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.600 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

**Babesleak:**



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



## ZEURE BERBEA

### Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Elaia



Udabarian eta udan zehar gure etxe-atarietan egiten dabean kabietan bizi izaten dan txori txiki eta zuri-baltza da elaiia. Hegan arin egiten dauana lez, "elaien moduan" esaten jako galapan dabilenari. Igorreko "Elai Alai" diskotekearen izena izan zana, batuaz, "enara" da. Izen biak antzik ez daukiela emoten badau be, jatorri bera daukie: \*elana da izen zaharra.

## ERETXIA

### Areatzako andren txokoa



#### SARA GUTIERREZ

Bardintasun arloko zinegotzia eta Emakume Foroako taldekidea

**B**ehin ukan dut nire gela propioa  
Dirua eta denpora idazteko.

Ekialdeko larrazkenaren minean

Eskerrak bihurtzen nizkion

Virginiani

Bere pentsua zinez

Ulertzen nuelako

Hondarrean.

**Room from own's soul**  
**Itxaro Borda**

Badira 5 urte Areatzako Emakume Foroak bere ibilbidea hasi ebal. Hastea ez da erreza izaten, oindino gitxiago gurea lango talde batentzat. Orduan eta orain be, askok gure helburuak eta lana ez dabek ezagutzen edota ulertuten, zoritxarrez andren artean batzuetan konplizidade faltea dagoalako eta gizonen artean sensibilizazio faltea.

Urteotan, aukera bardintasunen alde eta andron eskubi-deak eta presentzia aldarrikatuteko lan inportantea egin dau Foroak. Arrasti asko eta ordu luzeak emon doguz hausnartzen, eztabaidatzen, programak antolatuten... Besteak beste, hitzaldi eta jardunaldi interesgarriak antolatu doguz (Marcela Lagarde, Dominique Saillard...), sensibilizazio ekintzak, bai herriko eskolan, bai biolentzia matxistea txarretetako, bideo-forumak, ikastaroak eta tailerrak (autodefensa feministea, sexualidadea, autoestimea...) II Bardintasun planaren diseinua, Areatzako urbanismoa genero ikuspuntutik diseinetako estudioa eta herriko andren historiaren gaineko dokumental bat egiten gagoz orain.

Arratiako beste andra taldeak hartu-emonak sendotu doguz eta danon artean saretxo bat sortu dogu. Holan, martiak 8, Emakumeen Nazinoarteko Eguneke eta zemendiak 25, Andran

Kontrako Biolentziaren Kontrako Egunekeo programak Arratian andra taldeak alkarlanean antolatuten doguz. Lan honeri esker, nortasun propioa eta helburu argiak daukazan taldea bihurtu gara.

Maila personalean be egingadako lana eta bidean ikasitakoa

sano aberasgarria izan da.

1929an Virginia Woolf idazleak *A room of one's own* liburuan, androk geure presentzia bermatuteko baliabide ekonomikoak eta gela propioa behar dogula aldarrikatu eban. Liburu hau feminismoaren aldarrikapen testurik garrantzitsuenetarikoa bihurtu da eta Forokook be geurea egiten dogu.

Foroan, hasieratik ikusten genduan espazio propio baten premia behar egiteko eta urte honeetan batu dogun dokumentazio, publikazio eta abar gordetzeko. Heldu da gure gela propioa izateko momentua.

Udalak baliabideak ipini ditu, ago batez onartutako II Bardintasun Planak ezartzen dauan moduan, Emakume Foroak lan egiteko espazioa izan daian.

Gela honen atea Areatzako andra guztientzat zabalik dagoz, danontzat dago lekua, danak beharrezkoak garalako ildo honetatik lanean jarraituteko.

**BATZ**  
BATZ, S. KOOP.  
Tornea Iuzua, 32  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

*Beharreen beharrez, euskeraz eginez*

Enbata  
Batzen gaitu

## LUMATUTEN

KARMELE  
ANGOTIAHamaika  
ekintza

**A**spaldian jasotako eskariari beti ezezkoa emon ostean, idazteko erreztasunik ez daukat eta, oraingoan 10. urteurrena ospatzeko presaturatu euskuen ekitaldi aberats, hunkigarri eta, politaren ostean zeozertxo idaztea ebatzi dot.

Joatuzek neure eskerrik beroenak ekitaldi hori prestatzen ibili zinien guztioi. Egunean berean han aurrean, zein ostean lanean ibili zarieno. Zer gehiago behar zan ba? Abegia gozoa, abots eta musikeagaz hunkitu, alaitu zein barre egin, berbaz, kolorez, mobimentuez eta irudien edertasunaz gozatu, teknikarik aurretuenak erabiliz hamar urteok bertaratu. Zorionak!

Baina larrosa guztiak ei daukie arantzakoa eta hemen nirea:

BEGITU hartu eta irakurtzen dogunok ba ete dakigu zenbat kostautakoa dan? Zelan aitu ostean,

egun haretan Lasarte Aretoa gainezka ez egotea?

Arratia Musika Eskoleak 25 urteurrena ospatzeko ekitaldia lehengoan egin eban eta gauza bera esan behar. Arratian musikazaleak ei gara, Naiak euren ikerketeagaz, horixe frogatu dabela esan euskun ekitaldian: Zeanuriko txistulari taldea, Areatzako Banda eta txistulariak, organistak, kantariak, bertsolariak, musika taldeak zenbat gura eta, Musika Eskolatik bertatik pasau diran mila ikasle baino gehiago, euretako batzuk gitxienez bertan kantuan, koruari lagunduten edo Areatzako Bandan jotzen. Orduan, nik neuk jakin gurako neuke zer beste ekitaldi edo ekintza egon zan Arratian egun eta ordu horretan bertara ezin joan izateko. Larriagoa izan zan, euren esker ona adierazoteko opariak zabaltzen hasi ziranean udal batzuetako ordezkariak, eurak be, bertan ez egotea!

Ago betean aitatuten doguz "geure herria, geure kulturea" baina, hori danori lehioetatik dangilizka ipini doguzan zapiokaz esaten doguna baino arean gehiago izan ahalko da!

Hain gitxi izan eta, hamaika ekintza antolatuteko gai bagara ia eurei eusteko be gai garan. Hamaikagarrenera heldu aurretik ikusiko dogu alkar!

## ZERTZEAN



## JANIRE LOPEZ

## Ipar Haizearen Kontra

**E**uren antzera kubo banatzen gu geu be Ipar Haizearen Kontra galduta itsasoaren erdian eta daborduko ez dakit urak ZU eraman behar zaituen edo NI nazen itotzen ari dana

Baina gauari bereziki gorritu jakoz gaur masailak biok dakigu aurretik heriotza dala kristalean paratuko doguz eskuak eta zure azala sekula baino zuriagoa irudituko jata gaur hori posiblea bada...

Askatu egidazu eskua lasai ueña iritsitakoan agur-irribarre egingo deusut ondoratzean malkoak aspaldi jakuz arroz-ale bihurtu eta badakit bihotza hamaika zatitan puskatuko jatala baina nik neuk be joaten utziko zaitut

Ez egizu gugaitik negar egin laztana alkar ikusiko dogu barriro be itsas-hondoan akaso An-tonionean eta eskenatokian ni baino ez naz egongo Zu izango zara ikusle bakarra.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**U**rtero lez, aurtan be, Elexabeitin auzoko barriak daukaguz. Gure biloba Giuliak baserriko beste animalia batzuk bezala ezagutzen ditu.

Egunean zehar, Santiagoko zugatxetan ikusi daitezke lotan 3 mozoilo: ama eta bere kume bi. Gauean, gure baserriko balkoi, teilatu, kamara eta leihoetan ibiltzen dira kasan.

Hurrengo goizean inguru guztiak kakaztuta egoten dira, baina mozoiloak eta zorte ona beti lotuta joan diranez, Goikoko baserriko leihoak beti egongo dira zabalik familia honentzat.

**Elda Ortuondo**



  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

**LORAZAINTZA**

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorosti.cl.com](mailto:gorosti@gorosti.cl.com)

 **Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika**  
hagin klinika

Marina Urigoitia Aiderkoa  
Odontologia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igone-Bizkaia  
T. 94 631 30 39

Halegaitz 2, behea, 110  
R.P.S. 25/06

  
nagusientzako etxea  
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - [www.jandoniz.com](http://www.jandoniz.com)

## LEMOA

# Konponbiderik ez da adostu, Bistibietako zabortegiaren hatsagaz amaituteko

Lemoa, Zornotza eta Galdakaoko herritarrek kezkatuta dagoz Bistibietako zabortegiaren hatsagaz. Hats agoantzezina izateaz gainera, bildur dira ez ete dan osasunerako txarra.



Bistibietako zabortegiaren bigarren fasea 2008.

### Erredakzinoa

Hori dala eta, orain hilebete eta erdi, Zornotza eta Galdakaoko Udalak kejea, eta arazo hori konponduteko eskaerea bialdu eutsien Lemoako Udalari. Eta Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari, zaborrak botaten dabezan gasak kontrolatuko eta neurriak ipinteko eskatu eutseen. "Zabortege horretan lixibiadoak eta dagoz eta horreek hatsa botaten dabe. Lemoatik ez da somatzen baina beste aldera joan ezkerro bai" dino Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak. "Guk uste dogu kontrolau egin behar dala. Hatsen asuntoa kontrolau behar da eta uraren kutsadura be bai. Hainbat aspektu dagoz hor ingurmenari kalte handia egiten deusienak eta kontrolau egin behar dira".

Zabortegea 2002tik funtzionamentuan egon arren, hatsa azkenengo 10 hileetan edo, hasi da somatzen. Izan be, zabortegiaren lixibiadoen putzua 2007an bete zan eta bigarren fasean, beste bat beteten hasi ziran. Bigarren hau be ia beteta dago orain. "Arazoa da bigarren honen zati bat lehenengoaren

gainean egin zala. Horren pisuak apurto ahal izan dau lixibiadoen putzuaren egiturea" azaldu eban Unai Ortuzar Azurreka Ekologista Elkartearen presidentea eta PSEko zinegotziak Lemoan maiatzaren 10ean emondako berbaldi baten. Bere egunean be teknikiariak zabortege hor ipintearen kontra azaldu ziralako dino alkateak, "aldatz baten egonda eta erreka baten ondoan, euri jasak izan ezkerro, uraren osasungarritasuna arriskuan ipiniko litzatekela ohartarazo eben".

Arazoak arrazoi, hatsak dirala eta, danak ados dagoz lixibiadoak urten egin dirala eta isurketak dagozala. Lemoa, Zornotza eta Galdakaoko Udaletako Bildukoak salatuten dabenaren arabera 2008tik ez da isurketa kontrolik egin. Izan be, urte horretan, Ekonorrek, zabortegea kudeatzen dauan enpresek, errekursoa ipini eban usainen kontrolen kontra eta onartu egin eutsien errekursoa.

### Zabortegea ez handitzeko eskatuten dau Bilduk

Ekonor enpresek zabortegea kudeatzeko 2023 urtera arteko lizentzia dauka. Bistibietako za-

bortegea, barriz, ia beteta dago. Zabortegea handitzeko aurreikusita egoan lur eremua babestutako baso eremu urbanezin moduan dago jasota Lurralde Plan Partzialean. Plan hau 2010ean egin zan. "Planak argi eta garbi esaten dau baso eremuetan debekatuta dagozala zabortegeiak eta orduan, anpliazinorako lurak barriro aprobau beharko geunkez eta LPPak ez deusku ixten" dino Lemoako alkateak.

Zabortegearen funtzionamentua geldituarazo gura dau udalak. Horretarako, Ekonorreri lurrik ez emotea zabortegea handitzeko proposatu eban alkatetzak, eta aprilaren 4ko Osoko Bilkuran zabortegea ez handitzea bozkatu zan. Baina PSEk ez eban gura izan botoa emon eta PNV abas-tenidu egin zan.

Unai Ortuzar PSEkoaren ustez, Ekonorrek ez dauka zabortegea handitzeko asmorik eta gurago dau hortik ez jo "Azurreka ekologista elkartean badakigu fase hau bete eta orain 15 urte Lemoan hasi ebana amaitzeko asmoa daukana Ekonorrek" dino.

Udalak hatsa kontrolateko modua topetako behar egiten jarraituko dauala dino Elejabarrietak.

## ARRATIA

# Arratia Rock 19an

### Irati Urien

Maiatzaren 19an Herririk antolatutako "plazak bete kartzelak hustutzeko" ekimenaren barruan alkarretaratzeak antolatu dira Arratian preso eta igeslariak etxeratzeko eskatzeko; Zeanurin 12:00etan, Igorren 12:30ean, Diman 13:00etan, Artean be 13:00etan eta Lemoan 14:00etan izango dira zitak. Herriotan mural margoketea, ekitaldia, jantza, txalapartea, bertsoak... hori guztiori egongo da. Gero, 15:00etan Bazkari Herrikoia eta kantaldia egongo da Lemoako eskoletan. 19:00etatik aurrera, Arratia Rock kontzertuak hasiko dira

Gaztetxearen ondoan, Lemoan bertan. "Kontzertuak bete kartzelak hustutzeko" lemapean, Koma, Vendetta, Antton, Afu Sound Ekosistema, Itziarren Semeak eta Nik taldeak joko dabe. Azkeneko honek 2012ko maiatzean Abadiñoko Iditu Records-en grabau eta ekoiztutako "Elkartasun izarrak" abestia egin deutso Herrira móbimentuari. 22:00etan ekitaldia egongo da. "Egun honetan ehun persona inguru ibiliko dira boluntario moduan beharrean" dino antolatzaileak. Buelta egiteko autobusa egongo da euro bitan, 04:00etan Lemoako Correosetik urtenda. Sarrereak 10 euro balio ditu aurretik eta 13 euro bertan.



## ARRATIA


# Etixerik etxeko zabor-bilketa sistemearen ganeko inkestea BEGITUREN webgune barriztauan

### Erredakzinoa

Hamargarren urteurrena dala eta, BEGIRUK webgunea aldatu dau. Lehengoaren aldean daukazan barrikuntzetako bat inkestea dogu. Tresna horregaz ezagutu gura da zein dan irakurlearen eretxia eguneroko eta hurbileko gaien inguruan.

Lehenengo inkestako itauna hauxe da: "Arratiako Mankomunitateak etxerik etxeko zabor-bilketa sistema ezari beharko leuke?". Zaborraren bilketea eta gestinoa gero eta gehiagotan entzuten dan gaia izanda, sistema horren aldeko eta kontrako eretxiak jasotea da helburua.

Inkestearen emoitak hurrengo zenbakian argitaratuko dira. Zeure eretxia emon gura badozu: [www.begitu.org](http://www.begitu.org)-en sartu.



BEGITUREN webgune barriztaua.

## IGORRE

Hamar lagunentzako kursoan,  
60 personak emon dabe izena

## Erredakzioa

BATZ Sozietate Kooperatibak eta Derioko Txorierrri Politeknika Ikastegia Kooperatiba Elkarrekin Lanbideguz batera Trokelgintza Negoziorako langileak hartzeako asmoz trebakuntza kursoa antolatu dabe hamar lagunentzako. Formazio hau amaitutakoan, "personen % 60 behintzat kontratatatu" konprometidu da BATZ. Hori dala eta, arrakasta handia izan dau eskeintzak eta 60 lagunek emon dabe izena. Izena emoteko epea maiatzaren 7an amaitu zan eta ostean aukeraketa prozesu bateri ekin deusie BATZen hamar lagunegaz geratuteko.

## Behargin egokienaren bila

Ikastaroan parte hartzeako produktzioaren programazioan goi mailako heziketa zikloa iza-

tea da baldintzarik garrantzitsuena, aukeraturakoak doitzailen lanetan arituko dira eta. "Ikastaro honen helburua, sartzean diran perso-



BATZ.

nak hurrengo urteetan gugaz behar egitea da. Bihar (hilak 9) proba psikoteknikoak hasiko dira eta hurrengo egunetan organizazioari buruzko probak eta talde dinamikak egongo dira, lanpostu honeetarako behargin egokiena topetako" azaldu deusie BATZ-eko Giza Baliabide Saitetik BEGITURI.

## ARRATIA

Herri ekimeneko euskal  
hedabideak, Foru Aldundian

## Erredakzioa

Herri ekimeneko euskal hedabideak, Jaurilaritzan egon ostean, Bizkaiko Foru Aldundian izan ziran maiatzaren 7an euren diagnostikoa aurkezten, Kultura Diputadu Josune Ariztondogaz eta Euskara Zuzendaria dan Miren Dobaranegaz. Sektorearen izenean Xabier Letona Argia-ko zuzendaria, Iban Arregi Berria Taldeko hedabideen arduraduna eta Mikel Irizar Tokikom-eko lehendakaria izan ziran. Jaurilaritari legez, hausnarketa mahai bateratua osotuteko

eskatu deusie Aldundiari, eta besteak beste, honako eskaera zehatzak egin: diru laguntza politikea aldatu eta hitzarmen eredu ezarri daiala, sektorean inbersioak eta garapena sustatu daizala eta publizidade instituzionalaren banaketan hizkuntz erispideak pisu handiagoa izan daiala. Sektorea barne mailan emoten dabilen pausuen barri be emon dabe, besteak beste sektorea egituratzeko emoten dabiz pausuen barri.

Maiatzaren 18an Martin Garitano Gipuzkoako diputadu nagusia-gaz egingo dabe bilera.

## IGORRE

Iñigo Iruarrizagak  
irabazi dau  
jaietako kartel  
lehiaketeta

## Erredakzioa

Iñigo Iruarrizaga BEGITUKO kudeatzaileak irabazi dau Igorreko jaietako aurtengo kartel lehiaketeta.

Maiatzaren 3an emon eban epaia jai batzordeak "esanguratsua izatea, Igorreko jaiak zerikusia izatea eta polita izatea izan da balorau dana" azaldu eutsan BEGITURI Gotzone Arrizabalaga Igorreko San Antonio Jai Batzordekoak.

Kartelean agertuten dan plazea Igorreko udaletxeko plazea da. "Plazaren argakia atera genduan Saioa Larrea eta biok eta gainean pintetea bururatu jakun. Bion artean egin genduan kartela eta pozik gagoz emoitzeagaz" azaldu eutsan BEGITURI Iñigo Iruarrizaga

kartel irabazlearen egileak.



## ZEBERIO

Oinezkoentzat espaloiak egiteko  
diru laguntzea emon dau BFAK

## Erredakzioa

Diru laguntza bi jaso ditu Zeberio-riko Udalak espaloiak egin eta mobikortasun jasagarria bultzatzeko. Holan, Tokiko Agen-

da 21en barruan 40.592 euro eskuratu ditu oinezkoentzat eta bizikleta erabiltzaileentzat herri osoa zeharkatuko leuken bide bat egiteko proiektu bat egiteko eta herriko bideen katalogo bat

osotuteko.

Bigarren diru laguntzea Foru Aldundiko Lehendakaria Saileko Azpiegiturako 53.357 eurokoa izan da, Sautuolabarririk Zubibarrira joango litzateken espaloia bat egiteko. Kasu honetan dirua ez da nahikoa proiektu osoa amaituteko eta "oinezkoentzat arriskutsuak diran tartekak eukiko dabe lehentasuna" udalaren araber.

## IGORRE

Euskerazko  
piropo ez  
sexistak  
bultzatuko  
dau Euskera  
Sailak

## Lehiaketako kartela.

## Erredakzioa

Euskerazko piropo ez sexistak bultzatuteko asmoz, Igorreko Euskera Sailak abiatu dau Igorreko II. Piropo lehiaketeta. Euskerazko piroporik originalenak urte amaierara arte Igorreko Kultur Etxeko persona birentzako zine sarrerak doban izango dau saritzat.

Piropo sarituagaz Euskera Sailak pegatinak egingo ditu jaietarako.

Parte hartzeako mezu bat bialdu behar da a.arauzo@igorre.net helbidera edo gutunazal baten Kultur Etxean entregau. Piropoagaz batera, izen-abizenak eta hartu-emonetarako telefonoa emon behar dira.

## ARRATIA

Greba deialdia  
zerbitzu  
publikoetan

## Erredakzioa

ELA, LAB, STEE-EILAS eta ESK sindikatuak zerbitzu publikoetan greba deialdia egin dabe maiatzaren 31rako, zerbitzu publikoen defentsan eta beharginen lan baldintzen alde. Izan be, azkenengo urteotan, murrizketak egin dira zerbitzu publikoetan, eta gehiago dagoz iragarrita "ongizate estadia desegiteko eta enplegu publikoa suntsitzeko" sindikatuon arabera.

Zerbitzu publikoko beharginai arrazoirik ez jakie falta protestea egiteko. Izan be, deialdia egin daben sindikatuen esanetan "amaiezina da Estaduko zein Hego Euskal Herriko instituzioetatik hartu dabezan neurrien zerrendea beharginen lan baldintzen kalterako eta jentartearen oinarriko ongizatea deuseztatzeke".

Beharginen lan baldintzak kaltetu dabezan neurriak enplegu publikorako deialdiak etetea, funtzionarien soldatea izoztea edo jubilazioa atzeratzea izan dirala dinoe. Ongizate estadia desegiteko, zerbitzu publikoak "pribatizau gura dabezala" salatu dabe sindikatuetak ordezkariek.

Gainera, "estadutik zein Hego Euskal Herriko administratioetatik inposatu gura deuskuezen ebatzien kontra gogor burrukatzearen garrantzia" azpimarratu gura dabe, izan be, "legeak aldatu, arauak apurtu, nazinoarteko lan araudia kontuan ez hartu eta oinarriko eskubideak amaitu dabez lotsa barik".

**Kendall Languages**

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz

- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elxalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

**expert**  **ARRATIA**

E-posta: expertarratia@cordevi.com  
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 80

## ZEBERIO

### Udal inbentarioan inmatrikulau dabe Paduako San Antonio ermitea

#### Erredakzioa

Zeberioko Udal Artxibategian topautako dokumentuen arabera, 1727ko abuztuaren 3an Paduako San Antonioren omenez ermita bat eregitea ebatzi zan. "Hori dala eta, hargile maisu bat kontratetea ebazten da eta baldintzak zehaztuten dira" emon dabe jakitera

udaletik.

Topautako agiri honek erregistrora eroan eta eraikina udal inbentarioan sartu da. "Zeberioko abadeari honen barri emon jako argituz, era berean, Zeberioko Udalaren aldetik ez dagoala inolango eragozpenik, orain arte lez, bertan mezea emon daiten" udal iturrien arabera.

## IGORRE

### Mihiluzeren bigarren kanporaketa hilaren 19an

#### Erredakzioa

Zapatuan, maiatzaren 19an, 18:00etan, Kultur Etxeko Lasarte Aretoan izango da. Oraingo honetan be bikote bakotzak euskearegag daukan abilezia erakutsi beharko dau eta formatoak berak markatzen dauan eritmoari jarraitu beharko deutsie: tribuaren berbak, esamesak, erogifikoak, imihintzioka eta potokumeak. Lehia arnastu leiteke bertan egon ezkerro, bikoteak artega eta ikusleak be

estu, bikoteak zer erantzungo. Esfortzu horrek eukiko dau, halanda be, saririk; izan be, parte hartzaile guztiai "euskeraz bizi gura dot" leloa daukan kamiseteta oparituko jakie. Parte hartzaile ez diranak be eukiko dabe kamisetak erosteko aukerea kanporaketa egunetan eta maiatzaren 18an eta bagilaren 1ean, 19:00etatik 21:00etara Agirre Lehendakariaren etorbidean horretarako ipiniko dan gunean. Horrez gain, AEKko euskaltegian be salgai egongo dira.



Lehenengo kanporaketan parte hartu ebenak.

## IGORRE

### Seirehun sinadura batu dira haur eskolea handitzeko eskatuz

#### Erredakzioa

Haur eskolea (0-3 urte) handitzeko eskatuz, Igorreko Udalean eta Eusko Jaurlaritzan 600 sinadura erregistratu dauz Igorreko talde batek. Hori dala eta, Beinat Anzola alkatea eta Karmele Aurrekoetxea hezkuntza zinegotzia sinadura biltzaileen ordezkarieta bategaz alkartu ziran maiatzaren 3an. Zerbitzua handitzeko udalak bere eskuetan dagoana egingo dauala agindu eutsen.

Gaur egun 34 plaza dagoz Igorreko haur eskolan. Udalak emondako informazioaren arabera, 0 eta 1 urte bitartekoen-

tzako beste gela bat eta biltegia beharrezkotzat jotzen dabe haur eskolako hezitzaileak. Gurasoen ordezkariak egindako batzarra aprobetxau eban udalak datozen hilabeteetarako eskolan eta umeen parkeetan egingo diran barrikuntzak azaltzeko.

"Maiatzaren 28ko osoko batzarra adierazpen bat eroango dau alkatetzak hiru udal talde, haur eskolako zuzendari eta gurasoen arteko erabateko konpromisoa adostu eta plaza gehiago lortzeako bidean alkarregaz behar egiteko helburuagaz. Lehen pausu moduan, batzarra eskatuko da Haurreskolen Partzuergoan eta

Eusko Jaurlaritzan" dinoe udaletik.



Igorreko haur eskolea. Argazkia: Deia.

## IGORRE

### Herritar foroak parte-hartzeari buruz hausnartuko dau lau saiotan

#### Erredakzioa

Igorreko Udalak parte-hartzeako foro bi antolatu ebezan igaz eta hareei segida emoteko maiatzaren 24 eta 29an eta bagilaren 21 eta 28an batuko da foroa partaidetza sistema definiduteko.

Igazko foroetan 70 lagunek hartu eben parte "ordura arte martxan ipinitako esperientziak ezagutu, aztertu eta baloratu ziran, aurrera begirako ikasgaiak edo kontuan hartzeak identifiketako. Beste udalerri batzuetako esperientziak be ezagutzeko aukerea izan genduan, praktika on horreetatik ikasi eta Igorrera begira hobetu beharrekoez hausnartzeko" udal iturrien

arabera.

Hurrengo saioetan, parte-hartzea zer dan, non, zelan eta nork

parte hartu, partaidetza guneen funtzioa eta partaidetza sistema kudeatzeko egiturea landuko dira.



Igorretarrak igaz egindako foro baten.

**BICIS**   
Arratiarron dendea  
**BICIS BIZI**  
JESUS CAÑAS TARAVILLO  
Tel. 94 630 92 20  
jscanas@movistar.es  
Gregorio Mendibil kalea, 12

ARA OTZ  
Lanetan 0 Jabetzen!  
Planta Operaria 2 al. - ADAR (Deia) - Bizkaia  
www.aramotz.com

**OPEL**  
Ibaigane, S. Coop. Ltda.  
EuzkoFos, 15  
48300 LEMOA (Bizkaia)  
Telfa: 631 33 30 - 631 31 31  
Fax: 631 36 15

Instalazio industriak - Mantenimtu industriak - Tresneria eta kontrola - Merkataritza estalabizimenduen instalazioak - Etebizitzaren erretformak edo berrikuntzak - Antena instalazioak - Mantenimendua - TDT - Telekomunikazioak - Herriko argiak - Potentziadun koadroak

Arratian kultura bultzatzen

**indar**  
instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-314 - 48.142 Artea (Bizkaia)  
Tel.: 94 555 47 19 - Fax-a: 94 404 06 70 - E-posta: indarsi@indarsi.es

JUAN BAUTISTA EGUZKITZA MEABE

# Gure don Juan berreskuratzen

Labayru Ikastegia, Lemoako Udalaren laguntzeagaz Juan Bautista Eguzkitza Meaberen lanen antologia bat prestatzen dabil.

## Erredakzinoa

Labayruk Juan Bautista Eguzkitza Meabe (1875-1934) idazle lemoztarraren sermoiak jasoten dauan liburua argitaratuko dau berandu baino lehen. Liburu hori prestatzeko lanetan Andres Urrutia Euskaltzainburu eta Labayru Ikastegiko laguntzailea dabil. Maiatzaren 8an Urrutia Lemoan egon zan "idazle handi eta ia ezezagun honen" gainean berba egiten. Idazle izateaz gainera abadea eta euskaltzaina izan zan Lemoakoa.

Andres Urrutia da Eguzkitzari buruz "gehien-gehien" dakiana Labayruko Igone Etxebarria bediazarraren berbetan "Urrutiak Bidegileak kolektinoko Eguzkitzaren biografia egin eban, *Gizarte-azua* liburuaren edizino eguneratua be prestatu eban eta sermoiak beronek aztertu ditu". Eta Urrutiarentzat Eguzkitza izan da bere "azken hogeitahogei urte honeetako lanik pozgarriena".

Labayruren liburutegian dagozan Eguzkitzaren obrak egon ziran ikusgai Lemoan. "Batzuk liburu solteak dira eta beste batzuk aldizkariak, bakoxtetik ale bat ekarri dogu: Euskera, Jakintza, Jaungoiko-Zalea... berak bere lanak argitaratutako aldizkariaren erakusgarri bat" esan eban Etxebarria Labayrukoak. Eta makinaz idatzita Eguzkitzaren eskuidatzizko sermoiaren transkripzioa be erakutsi eban Labayrukoak.

Euskalgintzeari ekarpen handia egin eutsan Eguzkitzak. Momentu haretan eleiza katolikoak bere mezuak eta irakaspenak euskeraz zabaldu gura zituan eta abade batzuk dotrinak eta meza jarraituteko liburuak euskeratu zituen. Juan Bautista Eguzkitza izan zan horreetako bat, "euskalgintzearen aldetik aintzat hartzeako modukoa" Urrutiaren esanetan.

**Eguzkitzak Bilboko Bihotz Sakratuaren inaugurazioan hartu eban berbea**



Andres Urrutia.

Bere sasoian izen handikoa izan bazan be, gerraostean ia galdu egin zan Eguzkitzaren izena, bildurrak isiltasuna ekarri ebalako. 1975. urtean Euskaltzaindiak oroitarria ipini eban Lemoako eleiza ondoan eta orain, apurka-apurka Lemoako Udala, lemoztarrak eta euskaldun guztiak Eguzkitzaren ekarpenak berreskuratzen dabiz, Labayru ikastegia eta Urrutiaren lanoi esker.

Berbaldian, udal ordezkariak eta idazlearen familiakoak be egon ziran.

## Eguzkitza bere sasoiko puntako intelektuala

"Eguzkitza egon zan latinezko katedran eskolak emoten eta liburuak idazten, erlijinozko liburuak batez be. Gaur egunean soziologia, hain zabaldua dagoan zientziaren lehen testua euskeraz *Gizarte-Auzia* idatzi eban Eguzkitzak. Etnografiarako aldia eta beta be izan eban eta landu egin eban. Sermoigintzan gailenatarikoa da. Eguzkitzak hainbat ekitalditan, esaterako Bilboko Bihotz Sakratuaren estatua inaugurazioan egin eban berba. Izan be, Bizkaian ospe handia eukan, itzal handia,

sona handikoa zan, batez be sermoigintzan baina ez bakarrik. Horretaz aparte Eguzkitzak parte hartu eban Euskaltzaindiaren zereginetan sorreratik bertatik" definidu eban Urrutiak.

XIX. mendearen amaiera eta XX.aren hasierako gizarteak burruka eta aldaketa sakonak bizi izan zituan: modernismoa, zientifikotasuna, giza mailen arteko burrukea eta abar pil-pilean egoazan.

Lemoztarra nekazina zan Urrutia eta bere senitartekoen arabera eta arlo askotan egin eban lan beti be modu "eredugarrian". Lanon arabera egituratu eban Urrutiak Bidegileak sailerako biografia eta holan be egin eban Lemoan. Honen arabera Eguzkitza, erlijino idazlea eta itzultzailea; sermoilaria; gizarte-azua erakuslea; Euskaltzain osoa eta kultur egilea; etnografoa, ikerlaria eta kazetaria, eta Jaungoiko-zale alkartearen partaidea izan zan.

## Don Juan irakasle eta idazlea

Hainbat ezizen erabili zituan Eguzkitzak bere idatziak sinatzeko; Lemoarra, Erri, Errizale eta Errien, hain zuzen be. Baina ezagutu ebe-

nak don Juan esaten ei eutsien.

Gazte gazterik Abade Mintegira joan zan Eguzkitza ikasle eta ikasketok amaitutakoan bertan geratu zan irakasle. Dana dala, eleizearen kargu baterako lehiaketan galtzaile atera zan eta, minduta, Mintegia itxi eta Lekeitoria joan zan 1904. urtean Latinidade katedrea betetera. Hurrengo 33 urteetan Lekeition bizi izan zan Eguzkitza.

"Frankistak Lekeition sartu ziranegon Eguzkitza kartzelaratu eban. Eguzkitza euskaltzalea zan, *Euzkadi* egunkarian idatzi eban, baina ez bakarrik horretan *Ekinen* be bai. *Ekin* oso polita zan errepublikan sortua. Eta epaitu ebenean "abala" behar izan eban. "Abala" frankisten lagun batek emoten eban esanez "gizon hau ez da gure kontrakoa, eta abar". Eta abala Resurreccion Maria Azkuek emon eutsan Eguzkitzari" dino Urrutiak.

Kartzelatik atera eta handik gutxira Lemoan hil zan 1939ko urri lehenengoaren 12an.

## Euskaltzaina eta Jaungoikozalaren partaidea

Erlijinoa eta euskerea landu zituan batez be Eguzkitzak.







Euskaltzaindia 1919. urtean sortu zan eta "Azkuek euskaltzaintza osoa 1919. urte horretan bertan" egotzi eutsala Eguzkitzari dino Urrutiak *Bidegile*ak.

"Sekulako lanak egin zituan: euskera batua eta euskalkiak, berbak, nondik nora hartu berba barriak, erispideak eta abar. Don Juan oso segurua zan hizkuntzearen aldetik ezagutzen ebalako Lemoakoa eta kostaldekoa".

Bere azken urteetan lemoaztarra Jaungoiko-Zale abade sare baten partaide izan zan. Bizkaiko abadeak sare bat antolatu eben mezatarako eta eleizan erabilteko euskerazko materialak sortu eta bananduteko. Eta sare horrek

### Frankistak Lekeition

sartu ziranean

kartzelaratu eben

Eguzkitza. Azkuek emon

eutsan abala kartzelatik

urteteko

bere aldizkaritxoak be atera eban.

Abade honeek euskaltzaleak be baziran eta erlijinoak eta euskalzaletasuna izan zirane honen ezaugarriarik aitagarrietakoak:

"Eguzkitza oso aktiboa izan zan. Sare horrek errepublika denporan ikusirik ze panorama egoan *Jaungoiko-Zale* aldizkaria argitaratzeaz batera, beste astekari bat be argitaratu eban: *Ekin*. Sare horren bitartez zabaltzen eben eta oso aktiboak izan zirane euskal estatutua defendatzen". *Ekin* astekariak nazionalak sartu ziranean ez eban jarraibiderik izan.

"Abadeak sare hau egiten dabe erlijinoaren mezua zabaltzeko eta euskalzaletasuna eta euskerea bera be zabaltzeko".



JB Eguzkitza Meabe.

## Lanak

Honeek dira Juan Bautista Eguzkitzaren lan batzuk:

Erlijino idazle eta itzultzaile:

Salvá eta Salbany *Garbitokiko Arimaen Ila* (1915) Itzulpena.  
*Andra Mariaren Loretako Ila* (1919).  
Baltzola *Argi Donea* (1932) bizkaieratu.  
*Kristiñau-Ikasbidia* (1934).

Gizarte-Auziaren erakuslea:

*Gizarte-Auzia* (lehen argitalpena 1935; bigarren argitalpena 1990).

Etnografo, ikerlaria eta kazetaria:

Artikuluak honako aldizkarietan:

"Kaxarrankaren gorabeherak eta Auriako jaya" *Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkaria*.

"Mikoleta'ren euskereak eta gaur egun Bizkaya'n darabilgunak ize alde ete-dauke?" *Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkaria*.

*Ekin*-en asteroko lanak.

"Emakume euskotarra" Kirikiño saria 1930ean.

*Jaungoiko-zalen* hainbat behar.

# Arratiako Musika Eskola

## IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

Epea: maiatzean

Tlfnoak: 94 673 92 05 / 656 71 61 83

9:00etatik - 14:30 arte

info@interklabe.com

25 URTE

**FUTBOLA**



Arteko Herriko Benta zurigorritz jantzita.

# Zurigorria nagusi Arratiako balkoietan

**Erredakzioa**

Athleticeko jokariak animetako maiatzaren 9an gure eremuko balkoietan eta kaleak zurigorritz jantzi ziran. Halanda be, 3-0 galdu eban Athleticek Europako Ligako Kopa Bukaresten, Atletico Madrilen kontra.

Dana dala, lehoien garaipena ospatuteko beste aukera bat badago oraindino. Beste partidu garran-

tzitsu bat jokatuko dau Athleticek hilaren 25ean eta, barriro be, jokariak animetan ibiliko dira Arratiako zaleak. Bartzelonaren kontrako finala Madrilen Vicente Calderonen jokatuko da eta argazkian legez jantziko dira gurean etxeak, kaleak eta jentea. Pantaila handiak be ipiniko dira, Bedian eta Areatzan berbarako, San Mamesera bertara joan ezin diran zaleak be tamaina handian ikusi daien partidua.

**MENDIA**

# Txindokira urteerea Arginatzen antolatuta

**Erredakzioa**

Arantzazuko Arginatz mendi taldeak ibilaldia antolatu dau Gipuzkoara, Txindoki mendira, maiatzaren 26an. Herriko plaza-rik urtegeko dira 07:45ean autobusean Larraitzera (Abaltzisketa) bidean, eta bakotzak bere jatekoa eroan beharko dau. Ibilbidea Larraitzetik Txindoki tontorrera izango da, joan etorria bost ordu ingurukoa da.

Ibilbidea egin gura ez dabenezat, Larraitzen bertan jatekx-

eta taberna batzuk dagoz, eta sagardotegi bat be bai. Honeek orubete inguruko ibilalditxoa egiteko aukerea izango dabe.

Izena emoteko epea maiatzaren 18an amaituko da, eta autobusaren kostua 12 eurokoa izango da bazkideentzat eta 20 eurokoa bazkide ez diranentzat. Mendi martxea egiteko asmoa daukanak, beraz, Arginatz mendi taldeko zuzendaritzako edozeineri emon ahal izango deutso izena eta dirua maiatzaren 18ra arte.

**MENDIA**

# Hamasei ermita eta 32 km. Dimako ibilaldian

**Erredakzioa**

Hilaren 26an, zapatuz, Dimako Ermiten ibilbidea izango da eta parte hartzean dabenak hamasei ermitetatik pasauko dira. Hori bai, horretarako 32 km. egin behar izango ditue. Hitzordua goizeko 07:00etan da Dimako plazan.

"Sano ibilbide polita da. Urte asko dira lagun talde bat hau egiten hasi zala. Gero udalak hartu eban bere gain. Antolakuntza

handi barik egiten da, bakotzak bere bokadiloa eroanda, lagun giroan" azaldu deutso BEGITURI Nagore Bernaola Dimako kultura teknikariak.

Ibiltariak honako ermita honetatik pasauko dira: San Roke, San Migel txiki, Madalena, San Inazio, San Blas, San Fresku, San Lontzo, Santa Apolonia, Santamañe, San Antolin, San Bizente, Santa Ageda, San Millan, Santiago, San Balentin eta, herrian bertan, Piedadea.

**FUTBOLA**

# Gora eta behera begira

**Maialen Egileor**

Arratiako gizonezkoak andrazkoen lorpen bardina errepikatu daikie. Izan be, bi jardunaldiren faltan lehenengo dira 73 puntugaz. Baina ezin dira lasaitu, atzekoak bertan daukiez eta: Basconia B bigarren da 72 puntugaz eta hirugarrenak, Lekeitiok, 69 daukaz.

Lemoak burua goian amaitu dau denporaldia. Azkenaurreko partiduan 1-2 irabazi eutsan Segovianari eta azkenengoan 0-0 bardindu eban Amorebietagaz. Honeek bigarren A mailara igoteko play off-a jokatuko dabe igaz hirugarren mailan egon eta gero. Eta hain zuzen be, hirugarren mailan jokatuko dau Lemoak hurrengo denporaldian.



Lemoa futbol taldea.

**Umeen moda 0-20 urte**

- Botoli
- Ray
- Aranda
- Akur
- Quilber
- Arantziaga
- Grandela
- Iñe
- Hassan

**sein**

LEHENDAKARI AGOIRE, 27 • 946 319 296  
seinmoda@hotmail.com

**GARANTXE Autoeskola**

TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ

Balonenak: A1, A, B1E, B

Lehendakari Agorre 31  
Tfn: 94 673 71 32  
48142 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskaltel.net

**AKESOLO, S.A.**

GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK

Garbe, 29 • Telefonoa: 94 673 60 14 • IGORRE BIZKAIA

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**

Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak

Juan de Ajiagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tfn: 94 631 2576 Fax: 647 405 115

**BIXER TABERNA**

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**axular**

kultur elkarrizketa

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**indar**

instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
T. 94 655 47 19  
indars@indars.es • www.indars.es

**AKEITEGIA**

**GAY & LORA**

**IGORRE**

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

**SanMiquel**

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN

**ZUZENBIDE**

ZERGA ETA DOKU KONTSULTAN  
ONDARUN HIGAZZINEN  
ASBUKURTAN

Sabino Arana, 3 Tfn: 94 673 71 41 - Fax: 94 673 64 01 - 48142 IGORRE

**Jose Luis Corbacho**

**pintura lanak**

Sabino Arana, 3, 3a • 94 673 70 87  
Igorre 48142 Bizkaia • 609 79 40 54

**ekin s.a.**

LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETA  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTSU SAREAK  
BASERRI ETA BASORRI BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel: 94 631 72 57 Fax: 94 673 95 25  
e-posta: c.ekin@telefonica.net

**Pinturas Anatia**

Javi Morato

Tel. 628 443 992

## MARATOI TXIKIA

# Arratiako XXXIII. Maratoi Txikia maiatzaren 27an

### Erredakzioa

Arratia Ikastola eta Arratia Institutuak antolatuten daberen Maratoi Txikia maiatzaren 27an izango da. Helmuga Igorreko eskolatan egongo da. Urteera barriz, parte hartzailei jagokien kilometro kopuruaren arabera, Zeanuri, Dima, Artea edota Igorretik izango da. Kategoriak eta egin beharreko ibilbidea honako honeek dira.

### Nagusiak

**Ibilbidea:** Zeanuriko plazatik Igorre (11 km).  
**Urteera ordua:** 10:00etan.  
**Izen emotea:** Igorren (kiroldegian) 09:00etatik 09:30era eta Zeanurin

09:30etik 10:00etara.

**1995tik 1999ra jaiotakoak**

**Ibilbidea:** Artea-Igorre.

**Urteera ordua:** 10:15etan.

**Izen emotea:** Artean 09:30etik 10:00etara.

**2000tik 2003ra jaiotakoak**

**Ibilbidea:** Dima-Igorre.

**Urteera ordua:** 10:00etan.

**Izen emotea:** Diman 09:15etik 10:00etara.

**2004an eta gazteagoak**

**Ibilbidea:** zirkuitua Igorreko eskolatan.

**Urteera ordua:** 10:00etan.

**Izen emotea:** Igorreko kiroldegian 09:15etik 10:00etara.

**ARRATIAKO XXXIII. Maratoi Txikia**

**2012 Maiatzak 27 Mayo**

**1995tik 1999ra jaiotakoak**  
 Ibilbidea: Artea-Igorre (11 km)  
 Urteera ordua: 10:15etan  
 Izen emotea: Artean 09:30etik 10:00etara

**2000tik 2003ra jaiotakoak**  
 Ibilbidea: Dima-Igorre  
 Urteera ordua: 10:00etan  
 Izen emotea: Diman 09:15etik 10:00etara

**2004an eta gazteagoak**  
 Ibilbidea: zirkuitua Igorreko eskolatan  
 Urteera ordua: 10:00etan  
 Izen emotea: Igorreko kiroldegian 09:15etik 10:00etara

**Mapa:** Igorre, Arantzazu, Dima, Artea, Areatza, Zeanuri.

**Antolatzaileak:** Arratia Ikastola eta Arratiako Institutua

Maratoi Txikiko kartela.

## FUTBOLA

# Arratiako neskak ligako txapeldun, Zorionak!

Arratiako andrazkoen futbol taldea liga txapelduna da, denporaldia amaitutako partiduen baten faltan. Arratiak 8-0 irabazi eban Pauldarraken kontra jokaturako azken partiduan.



Arratia futbol taldea.

### Ainhoa Duñabeitia

Maiatzak 12, Urbieta futbol zelaia, arrastiko 19:00ak. Arratiako jente asko partidua horren emoitzearen zain. Harmailak beilegiz jantzita egoazan. Ilusino, esperantza eta emozioz betetako partidua, amaiera ezin hobea gaz.

Markagailua gureak estreinau eben, eta Pauldarrak taldea hutsean itxi eben. Partidu ona egin eben arratiarrak, momentu bakar baten be amore emon barik. Gol partida ikaragarria Arratiakoak sartu eutsiena 9. postuan dagoan Barakoldoko taldeari. Zortzi gol izan ziran, lujuxko zortzi gol.

Partidua amaitzeko egoala "txapeldunak, txapeldunak!" entzuten zan harmailetatik. Oihuak, txaloak eta zaleen poztasuna igartzen zan, denporaldi osoko

ametsa betetzear egoalako. Epailak norgehiagokari amaiera emoteko txistu egin ebanean ametsa beteta egoan; gureak ligako txapeldun ziran. Txanpana, puzgarri beilegiak, pankartak... ez ziran falta izan futbol zelaian.

Ha ta guzti be, denporaldia ez da amaitu, partidua baten faltan dagoz. Azken partidua, bigarren postuan dagoan Barakaldoren aurka daukie. Arratiarrak txapeldun diranez, ohikoa dan pasiloa egin beharko deutsee bigarrenean.

Jokalariak denporaldiaren hasieratik gogor ibili dira eta lehenengo postuan mantendu dira ia denboraldi osoan. 29 partidua jokatu dabez, eta horreetatik 23 irabazi, 5 bardindu eta partidua bakararra galdu dabe.

Datorren urteari begira, Futboleko Euskal Federazioak liga barri bat antolatu dau, "Liga

Vasca" izenekoa. Bertan Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako talderik onenak jokatu ahal izango dabe. Gureak, lehenengo regionaleko irabazleak diranez, aspaldi lortu eben postua hor jokaturako. Dana dala, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako liga txapeldunak play off edo liga moduko bat jokatu beharko dabe; kasu honetan Arratia play off honen barruan egongo leiteke. Play off hau irabazita, kategoria bat igo beharrean bi igoteko aukerea izango dabe. Bigarren kategoria hori, Espainia mailako "Bigarren maila" izango litzateke.

BEGITUK Arratiako jokalaria txapeldunak zoriondu gura ditu ligen irabazteagatik eta egingandako denporaldiagatik. Gainera, aurten Arratiako andrazkoen futbol taldeak 10 urte betetzen ditu. Hori dala eta, zorion bikotxa neskek!

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitez bazkide!  
 •09:30etik zabalik  
 •Asteburretan pintxo bereziak

**ARRATIako ESKORRAK**

arratiko.zekorrak@gmail.com  
<http://santxisme.blogspot.com/>

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgintza zentralizatuak  
 Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriak, Pab. 07  
 Tel.Fax 94 673 62 76  
 48143 Igorre Bizkaia

**Gure Ikastetxeak**

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 10ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI  
 Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI  
 Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI  
 Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI  
 Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola  
 Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI  
 Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI  
 Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI  
 Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

## BERTSOLARITZEA

**Iñaki Iturriotzek jantzi dau Arratiako txapela**

Arratiako txapela jantzi eta zuzenean sailkatu da Iñaki Iturriotz igorretarra Bizkaiko txapelketarako.



Arratiako Txapelketako taldea.

**Erredakzioa**

Norgehiagokea Zeanuriko Kultur Etxean izan zan maiatzaren 12an. Bertan 6 bertsolari neurtu ziran: Arratiako hiru eta Zornotzako beste hiru. Arratiako ordezkaria, Illart Gumuziok eta Irati Astondoak osotu eben.

Ehun eta hogeik ikusle inguru batu ziran Zeanuriko Kultur Etxean saioa entzuteko. Iturriotzek gainera, bigarren sailkatuak be badauka

aukerea Bizkaiko txapelketan parte hartzeako, puntuen arabera. Bigarrena Unai Ormaetxea izan zan sailkapenerako 216 puntu lortuz. Gai-jartzaile Ibon Iza Dimako bertso eskolako kidea ibili zan eta Juanjo Respaldiza bertsolari, bertso irakasle eta bertso eragileak ipini eutsan Iturriotzeri txapela.

Illart Gumuziok hirugarren egin eban 199 puntu lortuz, eta Irati Astondoak seigarren.

## LEHIAKETEAK

**Urtzi Barrenetxeak irabazi dau Lemoako I. Narrazino Lehiaketea****Erredakzioa**

Urtzi Barrenetxea Igorrekoak irabazi dau Lemoako I. Narrazino Lehiaketearen lehenengo saria *Geltokian* ipuinagaz. Bigarren saria Bilbora joan da, Joana Esparta Uriarterentzat eta hirugarrena Lemoako Jokin Uriartek jaso dau.

"Tren geltoki baten garatzen da argumentua. Sarrionandiaren "Estazioko begiradak" ipuinaren omenaldi legez aspaldi idatzitako zirriborro bat atondu neban lehiaketara aurkeztuteko" dino irabazleak.

Guztira bederatzi narrazino

egon dira lehiaketearen: Lemoatik bi heldu dira, Igorretik bat, Bilbotik bi eta Barakaldotik bat.



Urtzi Barrenetxea.

## ANTZERKIA

**Ilargiaren bi aldeak Igorren****Erredakzioa**

Bagilaren 1ean, arrastiko 18:00etan Igorreko Kultur Etxean izango da antzezlan hau. Familia osoarentzako ikuskizuna da eta bazkideak doban eukiko dabe sarrerea.

Ilargiaren alde bakoitzean musika eta jantzi eritmoak desbardin egiten dabe taupada. 1go gaztetxoak, gerretara olgetan dibertitzen da. 2. gaztetxoak osterara, olgetan ibiltzen da gerrea ahaztu ahal izateko.

Marra batzuek banandu egiten dabe dana. Bitan. Hegoa eta Iparra; zuriak eta baltzak; azkarrak eta erregelak; handiak eta txikerrak... Marra batzuek hesiak dira. Marraren alde batean ala bestean. Ez pasau; ez sartu; ez zapaldu. Kontuz, marra! Marra batzuek ikusi daitezke. Eta tolestu; eta biribildu, eta bihurtu, eta astindu. Marrak gaintitu leitezke, eta zapaldu, eta mobidu. Marren gainetik, marren azpitik, marretan ibili gaitzke. Marra batzuek ikusezina dira. Eta halanda be tolestu leitezke; eta biribildu. Eta bihurtu eta astindu. Eta gaintitu, zapaldu, mobidu. Eta marrek batu daikie. Eta ez banandu. Zer da marra, bi puntu alkatzen dituan lerroa besterik?

## IRAKURLE KLUBA

**Garazi Kamio Bedian****Erredakzioa**

Hilaren 23an, Bediako irakurle taldearen maiatzeko saioan Garazi Kamio idazle andoindarra izango da konbidatua. Herriko liburutegian arrastiko 19:30ean hasiko dan saioa doazena aukerea eukiko dabe idazleagaz berba egiteko, eta gura dabezan itaunak egiteko, batez be igaz argitaratu eban *Beste norbaiten zapatak* (Elkar) liburuaren ingurukoak.

Kamiok argitaratu dauan lehenengo lanak zortzi ipuin bilduten dauz, eta Beasaingo Udalak, CAF enpresek eta Elkar argitaletxeak antolatuten daben idazle gazteentzako Igartza Bekaren XIII. edizioa irabazi eban.

## KOMIKIA

**1937ko komikia errekupe dau "Geure Berbategie"k**

Arratia Institutuko ikasleak ikasbiajerako dirua egiteko modu original baten bila, 1937an Kataluniako Generalitateak sortutako *Aleluyas de la defensa de Euzkadi* komikia euskeratu eta salgai ipini dabe.



Komikia salgai dago.

**Erredakzioa**

Komikia Bizkaiko herriak bonbardatu eta jausi ostean baina oraindino burni hesia jausi barik egoanean idatzi zan. Gernikako bonbardaketearen 75. urteurrenean 300 ale inguru, bakoitza euro baten, saldu zituen ikasleak Gernikan bertan.

"Katalanak dokumentu hau egin eben Euskal Herriari lagunduteko. Bertso papel batzuek dira eta Gernikako bonbardaketea eta gure inguruko herriak, Dima eta Zornotza, barbarako; aitatzen dira" azaldu deuto BEGIRURI Oihana Aihartza ikasleak.

Gerran sortutako dokumentua da *Aleluyas de la defensa de Euzkadi*. "Gertatua da iada, Gernikako bonbardaketea eta Zornotza guztiz erreta egoan ordurako. Lemoan sartzeako dagoz frankistak. Lemoatza gura dabe

hartu. 1937ko maiatzean dago eginda. Oso dokumentu polita da adierazteko gerrea zelakoa izan zan. Bizkaia aldean esanguratsuen aitatuten da. Bermeo aitatuten da, Sollube zelan dabizen hartzean eta helburua Bilbo hartzea zan. Umeen ebakuazioa eta zaharrena be aitatuten dira eta Frantzia eta Ingalaterraren laguntzak aitatuten dira" dino Iñaki Esparza Institutuko historia irakasleak.

**Komikia eta bertso papela buztartzen dauan dokumentua**

Iñaki Esparzak komiki hau erosi eban aspaldi. Komikiaren irudiak orduko estetika, hau da, Artetaren koadroen, zein kartel sozialisten eragin nabaria daukie. "Euskertzeo idea euki neban. Eta gainera errimeagaz. Ikasleen konplizidatea izateko, bakoitza egin eban zati baten itzulpena. Gero orraztu eta azken orrazkerea bertsolari batena



izan zan" dino historia irakasleak. Iñaki Iturriotzek emon eutsen azken orrazkerea ikasleen bertsolari.

Bertsok zortzi silabatako, bi lerrota eta bi puntudunak dira "originalaren moduak errespetatu gura izan doguz, neurri hori euskerazko neurri jatorra izan ez arren. Euskerari jagokonean bizkaieraz egitea aukeratu dogu. Izan be, orduan batua oraindino sortu barik egoan, eta uste izan dogu logikoagoa dala bizkai euskeran egitea, egokiagoa girotzeko. Bizkaieraz dago eginda, baina gaurko idazkeraz" dino Juan-txu Rekalde Institutuko irakasleak.

Zabaltzeko modua, barriz, euskal tradizioagaz dago lotuta. Bertso papelak dira eta hareek saltzean ziran moduan saltzean dabiz ikasleak. "Gernikako bonbardaketa-aren egunean, klaseak amaitu eta gero 1. batxillerreko ikasle talde bat Gernikara joan ginan eta han trikia eta panderoagaz ibili ginan saltzean" dino Idoia Pujana ikasleak. Jente asko biltzean dan lekuetara joateko asmoa daukie ikasleak, bertso papela honek saltzeako.

#### Geure Berbategie proiektuaren barruko ekintza

Komiki edo bertso papela honek atzean GB zigilua daukie. Komikia "Geure Berbategie proiektuaren barruan dagoalako. "Gure Berbategie" ez da bakarrik hiztegia. Hiztegia be bai, baina baita AK-37 eta beste ekimen batzuk be. Zer da "Geure Berbategie"? Iragana eta etorkizuna lotzeako kateari jarraitzeko sortu dan beste maila bat" dino Juan-txu Rekalde "Geure Berbategie" proiektukoak. Eta hor, ikasleak erreperau daben dokumentu honek badauka bere lekutxo.

## ZINEKLUBA

### Quentin Tarantinoren filmak Igorreko zineklubean

#### Erredakzioa

Quentin Tarantino zine zuzendarari eskeintzen deusaz Igorreko zineklubak bere hurrengo saioak. *Reservoir dogs*, *Jackie Brown* eta *Malditos bastardos* ikusi ahal izango dira maiatzeko egunetan arrastiko zortziretan eta euro bi eta erdiko prezioan.

Tarantino famadua egin zan 1990eko hamarkadan bere argumentu eten, berba gordin eta bere filmen indarkeriagatik. *Pulp Fiction* lanagatik gidoi onenari Oskar saria eta Canneseko Urrezko Palma irabazi zituan 1994an Estatu Batuetako zuzendari honek, eta Igorren ikusi ahal izango dan *Malditos Bastardos* filmak zuzendari eta gidoi onenaren izentapenak izan ebazan 2009an Oskar, Bafta eta Urrezko Globoak sarieran.

#### *Reservoir dogs* (1992)

Maiatzaren 17an, Tarantino famadu egin eban *Reservoir dogs* filma ikusi ahal izango da.

Antolatutako banda bat enpresa batetik diamanteak eroateko kontratetan dabe. Alarmak jo baino lehen baina, polizia han dago. Poliziagaz izandako tiroketan bandako kide batzuk hil egiten dira eta besteak hitzartutako lekuan batzean

dira. Taldean traidore bat dagoala dirudi eta nor dan deskubriduten saiaturko dira taldekoak.

#### *Jackie Brown* (1997)


Zineklubeko bigarren filma hilaren 24an izango da.

Jackie Brownnek (Pam Grier) bere azafata soldatea Ordell Robbie (Samuel L. Jackson) ama trafikatzailarentzat dibisa kontrabandoa eginez osotuten dau, aireportuan, polizia batek eta aduane-tako langile batek harrapatu arte. Momentu horretatik aurrera miloe erdi dolar lortzeako sei jokalariren arteko partidea hasiko da.

#### *Malditos bastardos* (2007)

Ziklo honetako azken filma hilaren 31n egongo da ikusgai Igorren.

Bigarren Mundu Gerrako Frantzia okupauan, Shosanna Dreyfus (Melanie Laurent) bere familiaren hilketearen lekuko da. Parisera iges egin ondoren, nortasun barri bat hartzean dau zinema bateko jaube moduan. Europako beste leku baten, Aldo Raine (Brad Pitt) tenienteak soldadu judu talde bat entrenetan dau objektibo zehatzai eraso egiteko. Patuak Dreyfusen zinemaren markesinearen pean alkarrarazoko ditu guztiak.



## MAHAI-INGURUA

### Euskal hedabideen gaineko mahai-ingurua Lemoan

#### Erredakzioa

Maiatzaren 17an, begituren 10. urteurrenaren ekitaldien artean, euskal hedabideen etorkizunaren gaineko mahai-ingurua antolatu dau Zertu Kultur Elkartek. Maria Gonzalez Gorosari Komunikazinoan Doktorea, Mikel Irizar Topaguneako presidentea eta Martxelo Otamendi Berriako zuzenda-

riak egingo dabe euskal hedabideen egoerearen gaineko hausnarketea arrastiko 19:30ean, Lemoan, jubila-duen etxearen gaineko aretoan. Moderadore beharretan Iban Gortazar ibiliko da. Karteletan Urko Aristi egoan iragarita hasiera baten, baina ezin etomia azaldu deutse antolatzaileai.

Kazetaritza eredia krisi sakona sufriduten dago, Informazio eta Komunikazio Teknologia in-formazioa eskuratzeko moduak eraldatu ditu eta. Krisi ekonomikoak be hainbat hedabide eta komunikazio proiektu zarratu arazo ditu eta euskal hedabideen sektoreak gogoetea eta aldaketak abiatu ditu krisiari aurre egiteko. Zeintzuk diran erronkak eta zelan egin aurre horreei izango dabe berba Lemoan batuko dira-nak. Ostean kopautxo egongo da.

**mahai-ingurua**  
**begitu** 10 **urte**  
laguntzailea: lemoako udala  
**Lemoan**  
Euskal hedabideen etorkizuneko erronkak  
**maria gonzalez gorosari**  
(komunikazinoan doktorea)  
**mikel irizar**  
(Topaguneako presidentea)  
**martxelo otamendi**  
(Berriako zuzendaria)

## DUNBA

### Pelikulak grabetan

#### Areatzako eskolako LH 3. zikloko ikasleak

Dakizuen moduan, Areatza eskolako 3. zikloko ikasleok pelikulen proiektuagaz gabiz eta abenduko Dunban idatzi genduan moduan Briñaseko esperientziatik asko ikasi dogu.

Ia-ia amaitu dogu, ba ze grabaketea aurrera doa eta errodaje plana azkenean ondo betetzen badogu, datorren asterako pelikula biak amaituta eta montajea eginda euki beharko doguz. *Dantzaldi zoroa* eta *Irakasle misteriotsua* metraje laburreko filmak egiteko gogotik egin dogu lan, 26 ikasleok eta baita be gure irakasle biak. Esan leiteke negar eta barre asko eginda, esfortzu benetan handia eginda lortuko

dogula azkenean gure amets txikitxo hau pantailan ikustea. Ze lan gogorra dan benetan zinema! Gutako inork ez geunke pentsau be egingo hainbeste gauza eta hain zehatz antolatu beharko ziranik. Demoniño! Lehenengo ideen zaparradea egin, gero ideak lotzean joan, sinopsi bat egin, laburpena, *story board*-a egin, deskribapenak, ostean gidoi literarioa, gidoi teknikoa, zuzendaritza artistikoa, *atrezzoa*, lan plangintzea, dekorazioa preparau, kastina egin... puf! Merezidu dau eta oso polita da, baina... momentu batzuetan dana bertan behera botateko gogoaz be egon gara gero! Gainera, guraso eta eskola osorako berbal-dia bere preparau behar dogu. Eta ikasturtea amaitzeko antzerkitxo



Errodajea Areatzako eskolan.

be egingo dogu. Lemoitzeko barnetegira joan aurretik amaitu behar da eta hara joateko be ilusino handia daukagu. Ene! Zenbat

gauza ezta? Egia esan danok gagoz gustura eta nekatuta eta ia behingoz amaitzen dogun. Dana dala, sano politak dira momentu

batzuk, batez be; errodajea bera, kastina eta istorioa bera lotutea. Irakurleok be ahal dozue proba egin pelikula bat grabetan.



## AGENDEA

## MAIATZAK 17

## IGORRE

20:00etan, zinekluba Tarantino. *Reservoir dogs* Lasarte Aretan.

## LEMOA

19:30ean, mahai-ingurua "Euskal hedabideen etorkizuneko erronkak". Maria Gonzalez Gorosari, Mikel Irizar eta Martelo Otamendi, jubiladuen etxearren gaineko aretoan.

## MAIATZAK 18

## IGORRE

Akelarrea. 18:00etan sendaber tailerra eta ipuin kontaketak. 20:30ean antzerkia. 21:30ean kontzertua: Eskean. Avular Heriko Tabeman.

## MAIATZAK 19

## IGORRE

18:00etan Mihiluze txapelketaren 2. kanporaketak.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Albituri (943 m) umeen urteera.

Lemoako bola taldearen txapelketa: San Bartolome.

Hemira-k antolatuta, Arratia rock. 15:00etan, bazkari hemioia eta kantaldia. 19:00etan kontzertuak gaztetxe ondoan. 22:00etan, ekitaldia.

## ZEANURI

19:00etan, abesbatzak Andra Mari parrokian.

## ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta Zeberioko Mugarik Muga.

## MAIATZAK 20

## IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Luke eta Lucy*. 19:30ean, zinea *Intocable*. Lasarte Aretan.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldea, Beriain (1493 m), Leizazagoa (1350 m).

## MAIATZAK 23

## ARTEA

09:00etan, Mikel Deuna jubiladuen alkarteak antolatuta Donostiara urteera.

## BEDIA

19:00etan, Irakurle Kluba. Garazi Kamioren *Beste norbaiten zapatak*. Liburutegian.

## IGORRE

Debekatutako Hiria Mapa. Foroa 16:30ean andrazkoak eta gizezkoak. 19:00etan andrazkoak Gaztelera. Kultur Etxean.

## MAIATZAK 24

## IGORRE

18:00etan, heritarren parte-hartzearen gaineko foroa Kultur Etxean

20:00etan, zinekluba Tarantino *Jackie Brown* Lasarte Aretan.

## MAIATZAK 25

## AREATZA

Athletic-Bartzelona kopako finala abaki, arrastian ume eta gazteentzat ekintzak (giza-futbolina, jolasak...) plazan, iuntzean musika eta kopaxoa parkean. 22:00etan partidua pantaila handian ikusteko aukera Peñia Athletic Gorbeiko Kurutzeak antolatuta.

## BEDIA

22:00etan, Athleticen partidua ikusteko pantaila handia frontoian.

## IGORRE

19:00etan, hileko azken bankua, preso eta errepresaliatuen aldeko konzentrazinoa.

## MAIATZAK 26

## BEDIA

17:00etan, tailerra. Argazki markoa. Liburutegian.

## DIMA

07:00etan, ermiten ibilbidea. Plazan.

## IGORRE

11:00etan, Arratiako Belaunaldien arteko markea. Ibilbidea: Igorre-Dima. Kiroldegian.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta eskalada tailerra Eginon.

Lemoako bola taldea. Eskualdeko finala Zomotzan.

## MAIATZAK 27

## ARRATIA

Arratiako XXXIII Maratoi Txikia.

## IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Blancanieves, mirror mirror*. 19:30ean, zinea *¿Y ahora adónde vamos?* Lasarte Aretan.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta eskalada tailerra Eginon.

19:00etan, "Argia" emonaldia, dokumentala. Elizondoko Kultur Gunean.

## MAIATZAK 28

## DIMA

Bagilaren 3a arte aste kulturala.

## MAIATZAK 29

## IGORRE

18:00etan, herritarren parte-hartzearen gaineko foroa Kultur Etxean.

## MAIATZAK 30

## IGORRE

Debekatutako Hiria Mapa. Foroa 16:30ean andrazkoak eta gizezkoak. 19:00etan andrazkoak. Euskeraz. Kultur Etxean.

## MAIATZAK 31

## IGORRE

20:00etan, zinekluba Tarantino *Malditos bastardos* Lasarte Aretan.

## LEMOA

19:30ean, Karabie Gaztetxearen Etxebizitza tailerra Elkartzen-en eskutik.

## BAGILAK 1

## IGORRE

18:00etan, Hika Teatroa *Ilargiaren bi aldeak* Lasarte Aretan.

## BAGILAK 2

## IGORRE

09:00etan Iban Mayo marxa zikloturista.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldea, sari banaketak Lemoatza (358 m).

## UBIDE

Amexier mendi taldeak antolatuta Hiru Handiak.



## Aukeran Dantza Konpainiaren Burnia ikuskizuna maiatzaren 26an, 20:00etan

"Bilbo inguruan eta Bizkaian dana da burdina. Burdinak biztu gaitu eta burdinak itzali gara. Bor-bor egin eban burdinak burdinoletan, labe garaietan, irakiten zan gerretan, Karlistadetan eta Gerra Zibilean. Burdinak mobidu gaitu tren itxuran, itsasontzi itxuran. Burdinazko zubi baten gainean bizi gara orain be, ez atzera ez aurrera. Gure burmuina burdinazkoa da. Burdinaren gainean jantza egin behar dogu orain", dino Aukeran Dantza Konpainiak bere ikuskizunaren inguruan. Igorreko Lasarte Aretoko bazkideak doban ikusi ahal izango dabe, beste guztiak 8 eurotan.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## SALGAI

Altzarien eskeintza berezia, prezio sano bajuak likidazinoagaitik. Zatoz ikustera Elexalde 10 beheara (Igorre).

## DANERIK

## ETXEA ALOKATU GURA DOGU

Alokatzan dan baserri edo terrenoa daukan etxe baten bila gabizen bikotea gara. Telefonoa (Zuriñe: 656 739 952).

## ESKOLAK EMOTEN DODAZ

DBHko, Batxilergoko (ikasgai guztiak) eta Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoko eskolak emoten dira. Deitu 659 729 398 telefonora.

## LOKALA ALOKATZEN DOT

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefono honetara 616 813 747.

## GARBIKETAK

Etxeak, lokalak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

## ETXeko BEHARRAK ETA

## ZAINTZAK

Etxeko beharrak egin, eta umeak eta edadeko jentea jagoten dot. Kobxeduna. Mari Karmen 647 067 235.

## UMEAK JAGOTEN DODAZ

Goizeko ordutegian umeak jagoteko prest nago. Telefonoa 600 759 434 (Naiara).

## LOKALA GURA DOGU

Igorren alokairuan dagoan lokala gura dogun gazte taldea gara. Ahal dala erdigunean. Deitu 662 964 716 telefonora.

## LEKU BILA

Txakurrak eukiteko leku txiki baten bila nabil (Iker 680 518 473).

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Ilargiaren bi aldeak* antzezlanerako.

Ziortza Lekue (Igorre)  
Bihotz Gorospe (Dima)

**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Burnia* ikuskizunerako.


Lur Olabari (Zeanuri)  
Esti Garcia (Areatza)

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

Igorreko Kultur Etxea  
Lasarte Aretoa

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Libre. 2.- Kordela. Letra bat. 3.- Boroa. Ke asko. 4.- Gizonezkoen izena. Euskera zaharrean, txakur. 5.- Adan eta Ebaren hirugarren semea. Euzko Langileen Alkartasuna. 6.- Iridioa. Siku. 7.- Kirten, pepelo. Bat erromatar. 8.- Bokala. Azpila. 9.- Gogoratu.

### GOITIK BEHERA

1.- Berrogeta hamar erromatar. Ikustaldia. 2.- Osmioa. Etorbizun. Oxigenoa. 3.- Lepondo. Narria, narra. 4.- Ahuntzaren ar. Andra zahar. 5.- Zerbaki bat. Alazoko. 6.- Bokala. Zelai. Atadian, kanpoan. 7.- Gogo. Uranioa.



Topau greziar mitologiako zazpi jainkoren izenak.

K	O	P	E	N	H	A	D	S	O
O	B	A	R	U	I	S	O	E	L
L	A	G	I	N	K	I	Z	U	G
A	R	I	Z	P	L	U	E	B	A
R	T	X	O	E	A	B	J	A	U
T	S	I	H	A	U	I	M	O	R
E	I	G	D	O	N	S	O	T	U
M	A	U	K	O	U	A	L	E	T
A	S	D	E	B	R	U	O	K	A
H	O	L	K	R	A	F	P	E	Z
F	R	A	K	A	N	D	A	J	O
U	X	E	S	A	O	R	B	O	L
P	O	S	E	I	D	O	N	E	G
A	M	I	R	A	N	B	U	K	A
N	O	R	A	B	E	D	A	R	O

# AKI MI KO

Aitziber



Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

publicidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Gugaz harremanetan ipinteko  
**94 631 73 14 eta  
649 979 112**

[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)



**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karnela eskolaraz zain erdiaz

Garbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: undaA@euskalnet.net

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igore  
94 631 52 26

*Los Chopos*  
neurriera egindako armairuak

Anda, Los Chopos, 35 (Nagel) Tel.: 94 430 40 94

**Esposizinoa eta  
fabrikea Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
[www.armariosloschopos.com](http://www.armariosloschopos.com)

\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
# 94 631 92 00



E. Agirre, 7.  
48120 Igore (Bizkaia) Tfnoa: 94 632 64 78

**INCOESA**

Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia



**Bar Restaurante  
Montero**

**Eguneko menua**  
euskal sukaldaritza,  
sukaldaritza bolibiarra  
eta brasildarra

Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

## ENERITZ ATUTXA ETA MARINA URIGOITIA

**"Eneritz eta Marina ez da inoiz amaitu"**

Eneritz eta Marina. Bata Lemoakoa eta bestea Arteakoa. Txikitan alkarregaz ibili ziran eskolan eta urte hareetatik aurrera bien arteko hartu-emonetan beti eurekaz eroango daberen hirugarren protagonista bat batu jaken: kantua. Txiki-txikitatik eszenalekura igon eta *a capella* abestu dabe kantu txapelketetan zein ostantzeko ekitaldietan. Sariak eta oroitzapen onak ez jakez falta. BEGUREN 10. urteurreneko ekitaldian ikusi genduzan aspaldiko partez.

Irati Urien

**Noz hasi zinen kantetan?**

Umetan esan geinke, gazte gaztetatik ikastolan hasi ginan, 12 urte ingurugaz. Haur Kantu Txapelketako propaganda heldu jakun eta lau joan ginan. Gero hortik aurrera biok bakarrik segidu genduan.

**Zer dala eta animau zinen?**

Kar mele andereñoak bultzatuta. Eta eskoleak berak be bai, ze orduan bertako hainbatek hartu genduan parte.

**Akordetan zarie lehenengo ekitaldi horregaz?**

Bai. Zeanurin izan zan. Iturengo Aroza eta Loriak Udan kantau genduzan.

**Hortik aurrera ze bide hartu zenuen?**

Institutuan egon ginanean nagusien txapelketetara joaten hasi ginan urte askoan zehar, "zuok ia nahiko da" esan euskuen arte (barre egiten dabe).

**Etzera sari bat baino gehiago ekarritakoak zarie ezta?**

Bai. Bizkaikoa bi bider irabazi gen-

duan, eta bigarren be hainbat bider geratu ginan. Euskal Herrikora be joanda gagoz eta han sari bereziren bat hartu genduan baina irabazi ez. Mikel Urdangarin, Eñaut Elorrieta, Gorka Urbizu, Anabel Arraiza... honiek guztiak aurkeztu ziran txapelketetara, kanterea egoan gure sasoiaren.

**Zegaitik a capella?**

Holan hasi ginan eta gustura gagoz holan.

**Ez dozue inoz planteau instrumenturen bat sartzea?**

Talde bategaz kantetako kuriosidadea badaukagu. Itzela izan behar dau. Ostetik ekipo bat euki ezkerro hazi egin behar zara derrigor.

**Kantu txapelketatik aparte beste ekitaldi batzuetan be kantetan zenuen?**

Bai. Kantu Txapelketara joan ezkerro gero beste lekuren baten kantetan dozu, baten bat zugaran fjetan da, deitu egiten deusue, gero handik beste kantaldi batek urtetan deusue...

**Inoiz ahaztuko ez dozuen ekitaldiren bat?**

Abadiñon Benito Lertxundiren aurretik kantau genduan, adibidez. Gaztetxoak ginan ondino baina akordetan gara sano gustura kantau genduala. Sei kantuko errepertorio polit bat eroan genduan. Akorduan daukagu baita be Erramun Martikorenagaz Bermeorako bidean egoan Bentaberri tabernan abestu genduanekoa. Oso momentu polita izan zan. Gure mundutik guztiz kanpora be egin doguz kantaldi batzuk, lehendakariagaz adibidez. Emakunderen ekitaldietan birritan kantautu be bagagoz. Eusko Jaurilaritzan ezagunak gara (barre egiten dabe). Ane Igaritburugaz be egonda gagoz; Arteako udaletxe aurrean kotxe ofizial bat etori, barrura sartu eta barruan Ane Igaritburu egon, eta Gasteizera kantetan. Holako gauzak. Eta gero guztiz kontrara taberna zulo baten eta lau lagun entzuten. Danerik.

**Akordetan zarie abestuten zenuen kantakaz?**

Batzukaz bai. Ez dira oso kanta herrikoak edo oso entzunak. Errepertorioa aukeratzeko orduan beti ibili gara zeozer apartetako asmoagaz, ez edozeinek dakizan kantak. Hori bai, beti gure gustukoak.

**Amaitu egin zan Eneritz eta Marina?**

Eneritz eta Marina ez da inoz amaitu. Gu beti gagoz kantetako prest. Egia da azkenengo hamar urteotan sano gitxi kantetan ibili garala baina asko kantautakoak gara.

**Hamar urte esan dozue. BEGUREN be horrebeste egin dauz aurten eta hori ospatuteko egin zan ekitaldian kantetako eskatu eutsuen. Zelan hartu zenuen barri hori?**

Oso ondo, poza hartu genduan.

**Arratian izanda eta bertakoak ikusten joango zirala jakinik,****lotsa edo nerbio gehiago?**

Bai, Arratian izakeran... baina kanpoan abestu ezkerro be bai. Beti gura dozu gustura kantau, norbera gustura geditutea.

**Ze balorazino emoten deuzue BEGUREN ekitaldian kantetearen esperientziari?**

Oso ona. Askok sorpresea eroan eben. "Aiba baina zuek kantau egiten dozue?", "Ze isilik euki dozuen" edo "zuen beste fazeta bat ezagutu dogu". Baina isilik ez, bizitza erdia daroago honetan. Askok ez badabe jakin be.

**Kantagintzeak zuen bizitzako parte handi bat bete dauela esan geinke?**

Bai, duda barik. Eta gaztaroan.

**"Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko" dinoe. Zelan ikusten dozue euskal kantagintzearen egoerea?**

Orain ikusten da herrietan probokau egiten dirala holako situazioak. Pentsetan dogu bizirik dagoala eta jenteari gustetan jakola baina akaso falta da aukerea edo bultza egitea. Adibidez Lemoan hilean behin jenteari liburuxkoak bananduten deusiez eta tabernetatik kantetan joaten dira. Lehen jenteak berez egiten

ebana, orain ez dau berez egiten. Ez dogu pentsetan herria hilko danik.

**Gaztetxoak zinienean ereduren bat eukiten zenuen?**

Ereduak bai baina ez dogu sekula be inor imitau. Benito Lertxundi, Erramun Martikorena... eta holangoak asko gustetan jakuzan, baita modernoagoak be bai. Baina abeslariak baino, kantuk eurak gustetan jakuzan gehiago. Disko zaharrak hartu eta iparraldekoak entzuten genduzan baina guk geurea egiten genduan.

**Gustauko jatzuen honetatik bizitea?**

Planteau be ez dogu inoz egin. Gainera gurea hain formato txikia izanda, *a capella*, gurea hasi eta akabau hemen egiten da. Guk biok bakarrik egin dogu dana, txarto edo ondo. Egia da gaztetxoak ginanean horretatik bizi ginala. Hiru-lau kantalditara joan eta zeozerko emoten euskuen. Guretzako gitxi be asko zan.

**Neskak gazte bi, a capella kantetan eszenalekuan...**

Errespetua emoten eban baina joan eta kantau egiten genduan. Gero gainera etorten jakuzan eta "ai neskek ze polito" esaten euskuen eta gu pozik. Sano oroitzapen politik daukaguz.

**bonodekor**  
Etxeko Ekipamendu eta Altzarien Arloko Bizkaiko Merkataritzaren Aldeko Konpainia  
Campaña de Apoyo al Comercio del Mueble y Equipamiento del Hogar de Bizkaia

**deskontua descuento**

**ETXETIK HURBIL**

AMUBI  
Asociación de Comercio del Mueble de Bizkaia

BFA DFB  
bbk

**mugarri**  
diseinu integrala

**GARBE 2 - IGORRE**

**ORDUTEGIA**  
Astelehenetik-barikura  
10:00etatik 13:30era  
17:00etatik 20:00etara  
Zapatuetan  
10:30etik 13:30era

**Ordutegia moldatzeko aukerea (94 631 51 03)**